ERALDAKETA DIGITALEKO PLANA

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

# ERALDAKETA DIGITALEKO PLANA

# GELARATZEA

# PLANA NOLA BIDERATU- ENPRESA HAUTATU

Enpresa hautatzerako orduan estrategia ezberdinak aurkituko ditu irakasle taldeak.




Ikasleak 1. edo 2. mailako praktikak egindako enpresa.

Sektoreko enpresa erreal bat, enpresa beraren laguntzarekin.

Irakasle taldeak asmatutako enpresa bat.

## Ikasleak 1. edo 2. mailako praktikak egindako enpresa.

- ✓ Kasu **erreala** da.
- ✓ Praktikaldian zehar informazioa bildu (adib. galdetegi bat diseinatu eta egunerokoan gehitu) eta ikastetxera bueltatzean, planteamendua egin dezake ikasleak.

- ✗ **Banakako** lana. Taldean egin daiteke, baina kudeatzen zailagoa.
- ✗ Enpresak emandako **informazioa oso ezberdina** izan daiteke, kasu batetik bestera.
- ✗ **Praktikaldia** ezin dira guztiz atzeratu azken hiruhilekora, ikasleei denbora eman behar zaie txostena egiteko.

## Sektoreko enpresa erreal bat, enpresa beraren laguntzarekin.

- ✅ Kasu **erreala** da eta **bisitatu daiteke**.
- ✅ Talde guztiak enpresa berdinaren gain lan egin dezake, beraz, **taldeka** egin daiteke. Ez dute denek prozesu edo alor berdina digitalizatu beharrik.
- ✅ Planaren aurkezpena enpresa berari egitearen aukera zabaltzen du.

- ❌ Enpresa egoki bat aurkitzeaz gain, **enpresak barne datuak eman** behar ditu, kasu batzuetan ez da bideragarri izango.
- ❌ Jasotako informazioa osatu gabea izan daiteke.

## Irakasle taldeak asmatutako enpresa bat.

- ✅ Planifikaziorako eta exekuziorako **askatasun gehiago**, tartean ez baitago kanpo agenterik.
- ✅ **Plana gidatu** daiteke, benetan irakasle taldeak sektore produktiboan gehien eragiten duten teknologietara bideratu dezake hasierako diseinutik.

- ❌ Irakasle taldearentzat **lan karga**. Oso zaila da, zerotik enpresa bat asmatzea, beharrezko informazio guztia sortu eta koherentzia mantentzea.
- ❌ **Ez** da kasu **erreal** bat.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

# ZIKLO IKUSPEGIA:
# MODULUEN ARTEKO EDUKI AMANKOMUNAK

PRODUKZIO-
-SEKTOREEI
APLIKATURIKO
DIGITALIZAZIOA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

# ZIKLO IKUSPEGIA

1 Modulua

2 Modulua

3 Modulua

X Modulua

Ingeles profesionala

EIP I

EIP II

Jasangarritasuna

Digitalizazioa

# ZIKLOKO MODULU ESPEZIFIKOAK

Ibilbidean zehar landu diren teknologia gaitzaile digital asko jadanik gure erronketan txertatuta ditugu, egun erabiltzen diren teknologiak baitira.



## Zer egin behar dugu?

- ❑ Teknologia horiek identifikatu.
- ❑ Esplizitu egin, hau da, ikasleekin lanketa egin, eta ebaluatu.

# EIP I eta II

Enplegurako ibilbide pertsonalean sektore produktiboetan eman diren aldaketa digitalek eragina dute eta ikastaroan aipatutako eduki asko lantzen dira EIP-n edota oina ematen dute lantzeko.

- ❑ Lanbide jardunerako egun eta etorkizuneko trebeziak. **Perfil berriak**.
- ❑ Lan Arriskuen Prebentzioan ere buru-osasuna, arrisku psikosozialak, ziberjazarpena..
- ❑ Identitate digitala.
- ❑ Lan modalitate berriak, adibidez telelana.
- ❑ Ikaskuntza autonomorako teknologia digitalak.



# EIP I eta II

❑ Produkzio sektoreen modernizazioa sustatzeko konpetentzia digitalak.

❑ Teknologiari buruzko gogoeta egin produkzio-eredua aldatzeko:

- Berrikuntza eta teknologia emergenteak: IoT, AA, blockchain, big data.
- Teknologia gizarte-berrikuntzan aplikatzea.



# PRODUKZIO-SEKTOREEI APLIKATUTAKO JASANGARRITASUNA

Teknologia digitalek giza garapen jasangarrian dituzten onurak eta arriskuak identifikatzea.



# PRODUKZIO-SEKTOREEI APLIKATUTAKO JASANGARRITASUNA

Produkzio sektoreei aplikatutako **digitalizazio** moduluetan jasangarritasuna zuzenean eta zeharka aipatzen da atal ezberdinetan. Digitalizazioa enpresa eta bere jarduna eredu jasangarriago batetara eraldatzeko tresnetako bat baita.



**Gogoratu digitalizazioa ez da helburua bere baitan, enpresaren helburuak lortzeko baliabidea baizik.**

# Moduluen arteko **ikaskuntzak bikoizten** dira

Ez bikoiztu → Aprobetxatu

# GAITASUNAK LANTZEN

1 Modulua | 2 Modulua | 3 Modulua | X Modulua

Ingeles profesionala | EIP I | EIP II | Jasangarritasuna | Digitalizazioa

**DIGCOMP**
GAITASUN DIGITALA

- Ikasleak
- Herritarrak
- Profesionalak

1.- Informazioa eta datuak bilatzea eta kudeatzea
2.- Komunikazioa eta lankidetza
3.- Eduki digitalak sorkutza
4.- Segurtasuna
5.- Arazoen ebazpena

| ERDI MAILAKO ZIKLOAK | Gaur egungo teknologia digital egokienak erabiltzen ditu produkzio-sektorea aro digitalera eraldatzeko, segurtasun- eta ingurumen-irizpideak kontuan hartuta. | | |
|---|---|---|---|
| Produkzio-ereduak eraldatzeko beharra **ulertzen du.** [1IE, 2IE, DIGCOMP 4] | Produkzio-prozesuak eraldatzen dituzten teknologia berriak **identifikatzen ditu.** [2IE, 3IE, 4IE] | Tituluaren produkzio-sektoreari hobekuntza handienak ekartzen dizkioten teknologia emergenteak **balioesten ditu,** segurtasun- eta iraunkortasun-irizpideak aplikatuta. [3IE, 4IE, DIGCOMP 4, 5] | Sektoreko enpresa klasiko bat ekoizpen-sistema digitalizatuetara egokitzeko eraldaketa-plan bat **diseinatzen du.** [5IE, DIGCOMP 4, 5] |




| GOI MAILAKO ZIKLOAK | Gaur egungo teknologia digital egokienak erabiltzen ditu produkzio-sektorea aro digitalera eraldatzeko, segurtasun- eta ingurumen-irizpideak kontuan hartuta. | | |
|---|---|---|---|
| Digitalizazioaren kontzeptua eta eraldaketa digitalak enpresa-munduan dituen aukerak **ulertzen ditu.** [1IE, DIGCOMP 4] | Teknologia Gaitzaileen ezaugarriak eta aplikazioak, hodeiko konputazioa, AA, datuak aktibo gisa, segurtasun- eta zibersegurtasun-sistemak **identifikatzen ditu.** [2IE, 3IE, 4IE, IE5] | Tituluaren produkzio-sektoreari hobekuntzarik handienak dakarzkion teknologia gaitzaile digitalak **balioesten ditu,** segurtasun- eta iraunkortasun-irizpideak aplikatuta. [2IE, 4IE, IE5, DIGCOMP 4, 5] | Eraldaketa digital proiektu bat **diseinatzen du** titulu-sektoreko enpresa batean, enpresa-helburuekin lerrokatutako irtenbide digital eraginkorrak proposatuz. [6IE, DIGCOMP 4] |

# ERDI MAILA

| Gaur egungo teknologia digital egokienak erabiltzen ditu produkzio-sektorea aro digitalera eraldatzeko, segurtasun- eta ingurumen-irizpideak kontuan hartuta. | | | |
|---|---|---|---|
| Produkzio-ereduak eraldatzeko beharra **ulertzen du.**<br>**[1IE, 2IE, DIGCOMP 4]** | Produkzio-prozesuak eraldatzen dituzten teknologia berriak **identifikatzen ditu.**<br>**[2IE, 3IE, 4IE]** | Tituluaren produkzio-sektoreari hobekuntza handienak ekartzen dizkioten teknologia emergenteak **balioesten ditu,** segurtasun- eta iraunkortasun-irizpideak aplikatuta.<br>**[3IE, 4IE, DIGCOMP 4, 5]** | Sektoreko enpresa klasiko bat ekoizpen-sistema digitalizatuetara egokitzeko eraldaketa-plan bat **diseinatzen du.**<br>**[5IE, DIGCOMP 4, 5]** |
| Ekonomia Zirkularrean oinarritutako produkzio-ereduak definitzen ditu, eredu lineal batekin alderatuta. [1IE]<br><br>4. eta 5. industria-iraultzaren alderdi nagusiak ezaugarritzen ditu. [2IE]<br><br>Eraldaketak dakartzan hobekuntzak zerrendatzen ditu (zirkularrari eta digitalizatzeari dagokionez) [1IE, 2IE]<br><br>Bere sektoreko eraldaketa-jardunbide egokien adibideak aurkitzen ditu. [1IE] | Teknologia gaitzaileak zerrendatzen ditu. [2IE, 3IE]<br><br>Teknologia gaitzaileen ezaugarri eta aplikazio nagusiak deskribatzen ditu. [2IE, 3IE, 4IE]<br><br>Teknologia bakoitzak eskaintzen dituen abantailak ezagutzen ditu. [2IE, 3IE, 4IE] | Sektorearentzat interesgarrienak diren teknologia digital gaitzaile batzuekin esperimentatzen du, emergenteak eta eraldatzaileak direlako. [DIGCOMP 5]<br><br>Teknologia digitalak eta produkzio-prozesuak erlazionatzen ditu. [3IE, 4IE]<br><br>Bere sektorean sortzen ari diren teknologien erabilgarritasuna aztertzen du. [4IE]<br><br>Gailu digitalak eta norberaren eta ikaskideen datu pertsonalak babesten ditu ingurune digitaletan. [DIGCOMP 4] | Enpresa baten funtzionamendua definitzen du. [1IE, 5IE]<br><br>Eralda daitezkeen arloak/zereginak identifikatzen ditu. [1IE, 5IE]<br><br>Bere lanbideko prozesuak/zereginak ebazten ditu, sortzen ari diren teknologiak erabiliz. [DIGCOMP 5]<br><br>Teknologia digitalak txertatzean, emaitzak zein kasutan hobetzen diren ondorioztatzen du. [5IE]<br><br>Eraldaketa-plan bat idazten du. [5IE] |

# GOI MAILA

| Gaur egungo teknologia digitalak txertatzen ditu, enpresa-estrategiekin bat datozen lan-inguruneko prozesuak etengabe hobetzeko, segurtasun- eta iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuta. | | | |
|---|---|---|---|
| Digitalizazioaren kontzeptua eta eraldaketa digitalak enpresa-munduan dituen aukerak **azaltzen ditu.** **[1IE, DIGCOMP 4]** | Teknologia Gaitzaileen ezaugarriak eta aplikazioak, hodeiko konputazioa, AA, datuak aktibo gisa, segurtasun- eta zibersegurtasun-sistemak **identifikatzen ditu. [2IE, 3IE, 4IE, IE5]** | Tituluaren produkzio-sektoreari hobekuntzarik handienak dakarzkion teknologia gaitzaile digitalak **balioesten ditu,** segurtasun- eta iraunkortasun-irizpideak aplikatuta. **[2IE, 4IE, IE5, DIGCOMP 4, 5]** | Eraldaketa digital proiektu bat **diseinatzen du** titulu-sektoreko enpresa batean, enpresa-helburuekin lerrokatutako irtenbide digital eraginkorrak proposatuz. **[6IE, DIGCOMP 4]** |
| 4. eta 5. industria-iraultzaren alderdi nagusiak ezaugarritzen ditu. [1IE]<br><br>Digitalizazioaren eta eraldaketa digitalaren kontzeptuak definitzen ditu.<br><br>Enpresa baten IT eta OT inguruneak eta horien ezaugarriak identifikatzen ditu. [1IE]<br><br>Enpresa bat digitalizatzearen abantailak identifikatzen ditu. [1IE] | Teknologia gaitzaileak zerrendatzen ditu. [2IE, 3IE]<br><br>Teknologia gaitzaileen ezaugarri eta aplikazio nagusiak deskribatzen ditu. [2IE, 3IE, 4IE]<br><br>Teknologia bakoitzak eskaintzen dituen abantailak ezagutzen ditu. [2IE, 3IE, 4IE, 5IE] | Sektorearentzat interesgarrienak diren teknologia digital gaitzaile batzuekin esperimentatzen du, emergenteak eta eraldatzaileak direlako. [DIGCOMP 5]<br><br>Teknologia digitalak eta produkzio-prozesuak erlazionatzen ditu. [2IE]<br><br>Bere sektorean sortzen ari diren teknologien erabilgarritasuna aztertzen du. [2IE, 4IE]<br><br>Gailu digitalak eta norberaren eta ikaskideen datu pertsonalak babesten ditu ingurune digitaletan,jabetza, pribatutasuna eta erabilera segurua bezalako alderdiak kontuan hartuta. [5IE, DIGCOMP 4]<br><br>Bere lanbideko prozesuak/zereginak ebazten ditu, teknologia gaitzaileak txertatuz. [DIGCOMP 5] | Enpresa baten helburu estrategikoak zehazten ditu, egungo eta etorkizuneko beharrak kontuan hartuta. [6IE]<br><br>Ekoizpeneko/negozioko eta komunikazioetako eremu digitalizatuak identifikatzen ditu. [6IE]<br><br>Irtenbideak proposatzen ditu identifikatutako arloetarako, aldez aurreko analisiak eta enpresan integratzea kontuan hartuta.. [6IE]<br><br>Planteamenduetan segurtasun-neurriak txertatzen ditu. [6IE, DIGCOMP 4]<br><br>Eraldaketa-plan bat idazten du. [6IE] |



# Milesker!

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetza. Lan honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimena dauka (CC BY-NC-SA 4.0).